

LAUKIZ eta MARURI-JATABEko EUSKARA ZERBITZUA

# *eUTSI!*

2009ko APIRILA - 23 ZK.



**UDABERRIA,  
ODOL BERRIA**

## PODA IKASTAROA

Iaz Maruri-Jataben antolatutako inausketa ikastaroa, aurten Laukizen burutu zen pasa den otsailaren 21ean. 10 bat lagun bildu zen Atxipen inausketa alde teorikoa ezagutzeko. Jarraian Daniel Irisarriren etxera joan ziren ikasitakoa praktikan jartzeko.

## INAUTERI TAILERRA

Pasa den otsailaren 23an (Laukizen) eta 24an (Maruri-Jataben) inauteri tailerra egin zen. Pasa den urtean, antzeko tailerra burutu zen Laukizko liburutegian eta arrakasta ikusita, aurten bai Laukizen bai Maruri-Jatabeko liburutegi berrian, Euskal Herriko inauterietako pertsonaia ezberdinak ezagutzeko aukera izan genuen. Izan ere, herri bakoitzean inauteriak nola ospatzen ziren entzun ondoren eta herri bakoitzeko pertsonaia nola mozorrotzen zen ikusita, partaide bakoitzak, horietako bat aukeratu eta morrozoa egiten hasi ginen denok. Emaitzak argazkietan ikusi ahal dituzue: zaldiko, makilakixki,... eta printzesaren bat ere agertu egin zen!!





## KONTSERBA ETA MERMELADAK EGITEKO IKASTAROA

Martxo eta apirila bitartean, bai Laukizen bai Maruri-Jataben, kontserbak eta mermeladak egiten ikastaroa burutzen ari da. Laukizen, asteazken arratsaldeetan biltzen dira eta Maruri-Jataben zapatu goizetan. Esan behar da, Maruri-Jataben, hainbeste jende izena eman zuenez, beste ikastaro bat egingo dela ekainean asteazken ta ostegunetan.

Jendea pozik dabil nonbait, bestela begira zer esaten duen Laukizko ikastarora doan ikasle batek:

*“Pasaden martxoaren 4an, Laukizen, Kontserba eta Mermeladen Elaborazio-rako ikastaro bat hasi zen. Honak, apirilarte iraungo du. Europako Fondo Sozialak eta Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak subentzionatzen dute.*

*Atxispe tabernan hamar bat pertsona gehi Maite, irakaslea, biltzen gara astean behin. Bertan baratzetik aterako elikagaien aprobetxamendurako teknikak ikasten ditugu, besteak beste.*

*Lehenenik eta behin, geroxeago erabiliko ditugun materialak antzutzen ditugu. Segituan, Maitek guri guk elikagaiak nola landu behar ditugun azaltzen digu. Hau guztia egiten ari garen bitartean, hizketan gabiltza, janaria prestatzeko trukuak elkartrukatzen ditugu, etab...*

*Egia esan, oso ondo pasatzen dugu, eta denbora oso arin doa”.*

Ea ikastaroa amaitutakoan emaitzak ikusten ditugun!!



## FUTBALTXXO

Orain dela 23 urte, mutil talde batek, asteartero arratsaldeko 9:00etatik 10:00etara futboltxora jolasten hasi ziren Laukizko Kiroldegian.

Talde hau, urteak joan ahala, aldatzen joan da. Kasu batzuetan, hasierako mutil horiek, gaur egun bere semeekin etortzen dira jolastera.

Pasa den otsailaren 20an, urte hauetan guztietan jolastu duten “gazte” guztiak afaltzera joan ziren gure herriko jatetxe batera, guztira 40 lagun inguru bildu zirelarik.

Baina kasu berezi bat aipatu behar dugu. Mutil guzti hauen artean batek bakarrik bat darama 23 urte hauek asteartero falta barik futboltxora jolasten. Gaur egun aita da eta askotan bere semearekin etortzen da.

Gainera partidu guztiak lehenengoa balitz bezala jolasten du, gogo onez. Horregatik beste talde-kide guztien artean afari egunean kamiseta bat oparitu zioten.

Mutil hau guztion ezaguna da: J.O. izena izan arren “Fletxi” ezizenagaz ezagutzen dugu

**AURRERA “FLETXI “BESTE 23 URTE!!!!**

## Hilean behin, liburutegian, zerbait berezia,...

Otsailetik ekainera bitartean, Laukiz eta Maruri-Jatabeko Liburutegietara hurbiltzen bazarete ekintza ezberdinak egiteko aukera izango duzue. Tailer hauek adin guztietako umeentzat (eta gurasoentzat!!) antolatuta daude. "Euskara liburutegira" programa honek euskarazko literatura eta irakurtzeko zaletasuna sustatzea du helburu. Jendearen aldetik jasotako erantzuna ezberdina izan da lehenengo hilabete hauetan: Laukizen oso ona eta Marurin ez hain ona. Hala ere, esan behar da Laukizen jendea ohituta dagoela pasa den urtean zehar ekintza ezberdinak izan dituztelako, Marurin berriz, liburutegi berria izanda ezin izan da honelakorik egin. Espero dugu, hurrengo hilabeteetan gero eta jende gehiago hurbiltzea, bai batera bai bestera.

Hauexek dira izandako eta izango dutugun ekintzak:

**Otsailaren 13an (L) eta 20an (M-J)** "Altxorraren bila" joan ginen liburutegi osoan zehar. Pista batzuk ezkutatu eta hauei jarraituz altxorra aurkitu genuen: Altxor hau liburutegian dago gordeta eta ezagutu nahi baduzu hurbildu besterik ez duzu egin behar.

**Martxoaren 13an (L) eta 27an (M-J)**, "Ipuin pertsonalizatua" egin dugu. Ume bakoitzak etxetik ekarri zituzten familia osoko argazkiak eta honek ipuin berezietan itsatsi ostean, bakoitzak nahi zuen testua jartzen zion.

**Apirilaren 17an (L) eta 24an (M-J)**, 17:00etan "Izu literatura" eta amaren egunerako oparitxua egingo dugu.

**Maiatzaren 15ean (L) eta 22an (M-J)**, 17:00etan "Kontu kontalaria"

**Ekainaren 5ean (L) eta 12an (M-J)**, 17:00etan "Pertsonai mozorroa"

**Hurbildu eta ez zaizu damutuko!**



## Pentsioak osatzeko legeari buruzko hitzaldia

Maruri-Jatabeko Udalak otsailaren 12an antolatu zuen pentsioak osatzeko legeari buruzko hitzaldia. Egun horretan bertoko biztanleok, Iñigo Pombo Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarteratze zuzendaria dena, eta aldundiko teknikari batekin batu ginen Maruri-Jatabeko Kultur Etxean gai honi buruz berba egiteko, alkatea eta udaletxeko gizarte-langilea ere bertan zeudelarik.

Iñigo Pombok azaldu zuenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak beharizan egoeran dauden pentsiodunen familiei gutxieneko diru-sarrerak bermatzea du helburua lege honek. Hori lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Udalek martxan jarriko dituzte kasu bakoitzerako behar diren baliabideak.

Hogeitamar bat lagun bildu ginen honi buruz hitz egiteko. Hitzaldia amaitu ostean, luntx ederraz gozatu eta gure nagusiekaz berba egiteko aukera be izan genuen. Beraz, euren eguneroko kezkak, eta galderak jakin ahal izan genituen zuzen-zuzenean.

Hitzaldian esandakoaz ondo ulertu ez bazen ala informazio gehiago nahi izanez gero, udaletxera jo eta Gizarte langilea den Araitx, saiatuko da zalantzak argitzen.



# XABIER GOIKURIAK CONGOTIK BIDALITAKO GUTUNA

Orain pare bat urte, anbulatorio txo bat martxan jartzeko premia geunkan. Zuon laguntzari esker, eginda dago. Hemendik berrogei bat kilometro bueltan, jendea lasaiago egon daiteke, laguntza paraje daukala eta. Gaixoak ugari dira beti, batez ere eurialdia danean: malaria, tifus, tripetako minak, hesteetako zauriak eta abar. Orain “zuen anbulatorio horretara” nahiko erraz heltzeko era dabe oinez edo bizikletaz, ohe bat izateko, atsedena hartzeko eta minak arintzeko. Diruz edo jeneroa ekarriz (indabak, oilozkoa, ortuariak) ordaintzen dabe. Osa-suna eta sanitatea guztiei heltzen jake itxura baten. **ESKERRIK ASKO, JATABE!**

Luzaroan jarraitu daiket hemengo egoeraz berba egiten: gutxi jaten dabela, sarritan oinez ibilbide oso luzeak egin behar dituela herri handia 55 kilometrotara dagoalako, goizen goizetik alkartuta otoitz egiten dabela solora urten aurretik... Artaldetxo bat edo ahuntzak eduki ahal izanez gero, bizimodu hobea izan daikeez duda barik eta gauza izango litzateke bizikleta bat erosteko edo umeak eskolatzeko. Eta honetan ere, behin eta barrero zuen ahaleginak jende honen ametsak bete daikez. **ESKERRIK ASKO, JATABE!**

Gaurko honetan badaukat sarritan kontuan hartzen ez dan motibo bat zuoi eskerrak emoteko. Herrialde honetan bizi eta hemengo egoera ikusten danean, jende honek, sufritzen egon arren, protestatzen ez dauanean edo bere eskubideak defenditzen ez dauanean etabar, triste jartzen naz, porrot egin dodalakoan. Inoiz pentsatu dot ea egiten dodan lanak merezi dauan ala ez. Horrelakoak buruan bueltaka ditudala, hara non zatozen jatabetarrok eta jatabegintzako kideok, aurtengo Santa Agedako errondan lortutakoa emotera. Zelan ez jaso animua! Euri eta haize artean zuek etxerik etxe neguaren erdian batutako diruak nire gogoia biztu dau; adorea emon deust aurrera egiteko. Horko kanpoko neguak udabarria ekarri dau nire bihotzera. Ez nago eta ez nabil bakarrik, Jainkoari eskerrak.



Gauza ez da kantatzea bakarrik. Beste lurralde eta jendeen miseriak bihotza ikutzea da gauza, eta euroi laguntza eskeintzea. Jatabeko jendeak badaki euren etxe eta baserrietatik lagunduz, 9.000 kilometrotara dagozan beharrianak eta minak arindu daikeezala. Dirua bakarrik ez; horrez ganera, aparteko bultzada emon deustazue, jende honen gauzarik ederrrenak argiago ikusteko eta euron ilunak alde batera ixteko; Jainkoak emoten deuskun Barri Ona zabaltzeko, bakearen eta justiziaren bi-deetatik. **ESKERRIK ASKO, JATABE!**

Eskerrik asko, jatabegintza taldekooi, neguaren erdian nire bihotza berotu dozuelako eta hemengo jendeari itxaropena indartu deustazuelako. Eskerrik asko, herritar guztioi, hemengo gizon-emakumeak zuen anai-arreba lez sentidu izan dozuezalako; euren pozak eta minak zeuonak balira lez hartu dozuezalako. Bihotz-bihotzez, ba, eskerrik asko.

## MENDIKO BIZIKLETA EGUNA

Martxoaren 15ean, igandea; Laukiz bizikletaz bete zen. Lehenengo orduko eguraldi tristea ikusita inork ez zuen espero hainbeste txirrindulari biltzea. Giroa ezin hobea izan zen, umeak eta gurasoak denok batera bizikletan buelta batzuk emateko prest.

Bi zirkuitu egon ziren: bat gazteenentzako eta bestea ume eta helduentzako. Buelta amaituta, indarrak hartu behar ziren eta horretarako janari zein edari pilo zegoen prest; txorizoa, solomoa, txistorra, pastelak, ura, freskagarriak,...

Gainera partaideentzat opariak egon ziren.

**Benetan goiz polita guztientzat!!**



## Itxaropen handiak abiatu dira basamorturantz

Euskal Herriko hainbat erakundek, sahararrekin alkartasuna agertzeko, "Piztu Itxaropena" izeneko ekintza jarri eban martxan. Azkeneko kanpaina hau bosgarrena izan da.

Antolatzaileak arrain kontserbak (sardinak eta atuna, batez ere), azukrea, zerealak, pasta eta arroza eskatzen ebezan. Horrez ganera, Emakume Sahararren Alkarte Nazionalak konpresen beharrezana agertu eban, kanpaleketan horren premia handia egoala eta.

Joan dan otsailaren 14an, 35 kamioi abiatu ziran Donostiatik, aldean 400 tona janari, manta, arropa, eskolarako material eta osasuna zaintzeko hainbat jenero eroanez. Kamioi-ilara horren helmuga Algeriako Tindufen dagoen kanpalekua zen. Hemendik hara hiru bat asteko bidea dago.

Hara zer emon dogun jatabetarrok:

Lapikorakoak (garbantzua, indabak...): 67 pakete.

Azukrea: 34.

Arroza: 55.

Pasta: 50.

Atun eta sardina latak: 52.

Konpresak: 28 poltsa.

Jatabeko Udaletxean herrialde behartsuen aurrerapenari laguntzeko eratuta daukagun saila osotzen dogunok, eskerrak emon nahi deusueguz bihotz-bihotzez, oraingo honetan sahararrei eskeinitako laguntzagaitik.



## ZUHAITZ EGUNA MARURI-JATABEN

Pasa den martxoaren 7an eta duela lau urte hasitako ohiturari jarraituz 2008an Maruri-Jataben jaiotako ume bakoitzeko haritza landatu zen Elexpuru aldean (Jatarako bidean).

Aurten 10 ume jaio dira gure herrian: Iria, Enara, Maixe, Ainhize, Julen, Joane, Iker, Jon, Irati eta Izade.. Eta lehenengoz, den-denak etorri ziren ekitaldi honetara nahiz eta eguraldiak (ea beti bezala) ez lagundu.

12etan puntu puntuan prest geunden elizako aterpean ibilalditxoari hasiera emateko. Behin Elexpurura helduta alkateak hartu zuen hitza eta ume bakoitzaren izena esanez, hasi ziren gura-soak haritza landatzen udal langileen laguntzaz.

Ea amaitzean geundenean euriak ere agertu nahi izan zuen jai honetan eta arrapaladan amaitu genuen lana Kultur Etxera joan eta luntx gozoa dastatzeko.

Ekitaldia amaitzeko, diplomak banatu ziren 2008an jaiotako umeen artean.

Ea datorren urtean zorte hobea dugun eguraldiarekin!.



## LAUKIZ BERTSOAREN KUMA

Eulea, Taket, Kastrexana... Laukizen alkartzen ziran lantzean bertsoan. Antza, ohitura ez da galdu, eta joan zan martxoaren 7an, Bizkaiko Bertsozale Gazteen egunean, Bizkaiko hainbat bertsolari etorri jakuzan Laukizera.

Eguerdian kalejira hasita motorrak berotu zituezan, Aiko taldekoek prestatutako bazkariagaz jarraitzeko. Bazkalostean lagunartean kantatu eben, Jaliskoren bertso euskalduna ekarri eben Mungialdeko bertso-mariatxiek, eta Algortako bertso eskolakoek "Elortzatik Hortzera" programaren antzerkia egin eben.

Ostean, Laukizeko tabernetan ibili ziran kantuan, alkarri gai bereziak eta bertso-probak ipini eta kantuan, irrika eta zantzoka.

Eguna erromeria eder bategaz amaitu zan, eta baita gaua be.



# AGENDA

# ABESTU GEUGAZ!!

**ONGI ETORRI LAGUN! (KORRIKA 16)**

**Apirilaren 3an KORRIKA, Maruri-Jatabetik pasako da 13.30ak inguruan. Maruri-Jatabe eta Laukizko Udalek kilometro bana erosi dute. Korrika Gatikatik etorri eta Plentziarako bidea hartuko du herri osoa zeharkatuz. Anima zaitez korrika egitera!**

**Apirilak 24 Barikua.** Antzerkia Maruri-Jatabeko Kultur Etxean. Gurutze Beitia eta Gorka Aginagaldek "AGUUSSTO! antezlana aurkertuko digute Kultur Etxean arratsaldeko 7.30etan.

**Apirilak 29 Eguaztena.** AMAIA AREIZAGAK loleen zainketari buruzko txarla emango digu bere negutegiak erakusten dizkigun bitartean. 18.30etan geratuko gara Maruri-Jatabeko Kultur Etxean.

## LIBURUTEGIKO EKINTZAK

| Laukiz:                                                                                                                                        | Maruri-Jatabe |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| Apirilak 17                                                                                                                                    | Apirilak 24   |
| Maiatzak 15                                                                                                                                    | Maiatzak 22   |
| Ekainak 5                                                                                                                                      | Ekainak 12    |
| Saio guztiak liburutegian izango dira arratsaldeko 17.00etan<br>OHARRA: Ekintza hauek ume eta gurasoei zuzenduta daude<br><b>PARTE HARTU!!</b> |               |

.... eta beti bezala ERNE EGON ETXERA  
HELTZEN ZAIZUEN INFORMAZIOARI!!!!

## ALE HONETAN PARTE HARTU DUTE

Maria Fernandez  
Teresa Fuente  
Araitx Gogenola  
Jatabegintza  
Iris Patxo  
Saioa Sanz  
Fernando Unibaso



**MARURI-JATABEKO  
UDALA**



**LAUKIZKO  
UDALA**

Rami hasi zen Afrikan  
eta Andoni Gernikan  
Maddalen berriz Sohütan  
Evaristo Amerikan  
euskara herrian doa  
Euskal Herria korrikan  
euskara herrian doa  
mundu bat euskal herritan

Mikel oinez gehienetan  
Pepe eta Elvira trenetan  
Mohamed lanetik bueltan  
eta Nekane bizikletan  
mundu bat doa korrika  
hizkuntzaren bideetan  
mundu bat doa korrika  
euskararen herrietan

Karriketan korrikan  
korrika karriketan  
doa euskara... uhoo  
karriketan korrika  
korrika karriketan  
doa mundua... uhoo

Karriketan korrika  
korrika karriketan  
doa euskara... uhoo  
karriketan korrika  
korrika karriketan  
doa mundua... uhoo

Ongi etorri Aitor  
galdu zuen ta bila dator  
ongi etorri Sarai  
heldu arren korrika darrai

**Kantatu dezagun  
Ongi etorri lagun!  
Euskara herrira  
Zure herrira zatozena!!**

Orain euskara da soa  
euskaraz doa pausoa  
euskara da itsasoa  
zerua lurra auzoa  
euskara herrian dago  
euskaraz mundu osoa  
euskara herrian dago  
euskaraz mundu osoa

Karriketan korrika  
korrika karriketan  
doa Euskara... uhoo  
karriketan korrika  
korrika karriketan  
doa Mundua... uhoo

Karriketan korrika  
korrika karriketan  
doa Euskara... uhoo  
karriketan korrika  
korrika karriketan  
doa mundua... uhoo

Bidaia zugan bada  
eta bidea zeu bazara  
mundua da euskara  
zatoz mundu bat Korrikara

**Kantatu dezagun  
Ongi etorri lagun!  
Euskara herrira  
Zure herrira zatozena!!**

Betagarri & Jon Maia



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



euskara biziberritzeko plan nagusia  
plan general de promoción del uso del euskera



HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTA